

**LANAREN EGUNA** dela tarteko, kooperatibistak berez izan beharreko bertute nabarmenenak gogorarazteko ideia bat jakinarazi nahi dizuegu. Eta horrekin batera beste gogoeta batzuk, Arizmendiarrietarenak horiek ere, **lan munduan** dihardugula gogorarazten digutenak, eta horrenbestez, bertako kide diren pertsona guztiakin derrigorrez lankidetzan eta elkertasunez jokatu behar dugula gogorarazten digutenak.

**Kooperatibistok daukagun konpromiso gaitasunagatik nabarmendu behar dugu: geure kudeaketan aplikatzeko gai garen aurreikuspen, plangintza, antolamendu eta proiektzio mailaren bitartez.**

**Heldutasun kooperatibista egiaztatzeko beste bertute zehatz bat, zeinaren lanketa sistematikoaren bidez berezko lankidetzaren eraginkorraren lekukotza eta ohorea erakutsiko den, zereginik apalena gauzatzeko erantzukizuna da. Erantzukizun indarra eta ekimen balioaniztuna izan dira, hain zuzen, gure kooperatibista aitzindariak kalifikatzeko ezaugarrietako bi. Alabaina, gaur egun, lantegi handi eta erosoetan jardunagatik, ez dugu pentsatu behar horiek gutxiago behar ditugunik, baldin eta egiazki nahi baditugu gainditu enpresa sustapenak berez dakartzan traba guztiak.**  
**TU110-1969/10**

## BESTE GOGOETA BATZUK

**Kooperatiban**, badugu harrotzeko moduko ezaugarri bat: lan munduan murgilduta bizi gara, gainditzeko moduko eredu anker eta bidegabeei men egin gabe, eta ahaleginduz emantzipazio sozial eta ekonomikoaren abantaila batzuk geuk ez ezik, sufritzen ari diren eta askatasuna, justizia eta garapena irrikatzen duten guztiak ere goza ditzaten, horiekin irmoki identifikatuta sentituz, eta inolako meniarik gabe hedapen prozesuan aukera berriak sustatzen ahaleginduz. Ezin dugu pentsatu erabat finkatuta gaudenik, ezin dugu asebeteta egon edo konformistak izan; bestela, lan munduaren kausari traizio egingo genioke. TU104-1969/04

Landutako komunitate batean agintea irrikatzen duenak eta agintea gauzatu nahi duenak ez du bere zintzotasunagatik eta gainerakoekiko prestutasunagatik nabarmentzea baino formula hoberik. Komunitate batean euren prestutasunagatik eta zintzotasunagatik nabarmentzen diren pertsonen erreparatzen ikasten dutenek ez dute hutsik egingo, eta euren ere ez diete iruzur egingo. Noiz lortuko du gure gizarteak heldutasun hori, gainerakoetatik nabarmendu beharreko gaitasunak geure artean loratzea ahalbidetuko duena, **eta ez daukagunagatik, baizik eta garenagatik!** Klima hori sustatu behar dugu. COOP37-1963/09

Kooperatibistek ezin dute hain inozoak izan, eta ezin dute pentsatu dagokion egituraren estaldurarekin euren arrakasta luzera ere ziurtatuta dagoela. Beharrezkoa dute gizarte mugimenduak beste posizio batzuetatik jardutea, egiturak eraldatzeko asmoz, luzera ere horien garapena posible izan dadin. Sindikatuen eta politikaren arteko lankidetzaren ezinbestekoa eta irrikagarria da, baldin eta gizarte ordena justu eta gizatiar bat sustatzeko ereduak bultzatua bada. COOP39-1963/11

Erdizka esandako egiek, erdizkako zintzotasunak eta seriotasunak, erdizkako komunikazioak eta konfiantzak, erdizkako gizakiek zein erdizkako kooperatibek oso aukera koherentea osatzen dute, eta horrekin egin dugu aurrera. Testuinguru honetan, zatikako erantzukizuna gauzatzeak asetzen gaitu, egoeraren arabera gizatasunak, erdibideko eraginkortasunak eta banakoaren independentziarekin edo anarkiarekin bat ez datorren antolamenduak.

**Nora goaz horrela?** TU104-1969/04

ESPERIENTZIA KOOPERATIBOAREN lehenengo etaparen ezaugarria, hain zuzen, LANAREN ikuspegiari eta duintasunari begirako kontzientzia hartzearena izan da, nola pertsonalki garatzeko aukera gisa, hala ongizate komunari eta ondoriozko giza elkartasunaren lekukotzari egindako ekarpen eraginkor gisa. TU157-1973/12